



2/2016 gaia

---

**EBAZPENA, (...) JAUNAK, (...) DEPARTAMENTUKO (...) ZUZENDARI NAGUSIAK, JARDUNALDI TEKNIKO BATEKO HIZLARI GISAKO PARTAIDETZARI DAGOKION DIRU ORDAINA KOBATZEARI BURUZ EGINDAKO KONTSULTARI BURUZKOA**

---

## **I.- KONTSULTA**

1.- 2016ko maiatzaren 17an foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordeari (EEB) aurkeztutako idazkiaren bidez, interesdunak, (...) Departamentuaren (...) zuzendari nagusiak, EEBri kontsulta egiten dio, IVAP eta EUDELeK (...) inguruan antolatutako (...) izeneko jardunaldi teknikoan hizlari gisa parte hartzeagatiko diru ordainaren inguruan. Hitzaldiaren gaia (...) da.

2.- (...).

Idazkia amaitzeko, adierazten du ezen bere ustez arlo horretan duen esperientzia profesionalagatik gonbidatu dutela hitzaldia ematera, eta Jardunaldian izango duen parte hartzea eta IVAPek ezarrita daukan diru ordaina kobratzea onargarriak direla, ez diotelako negatiboki eragiten beren eginkizunen garapenari, eta ezin diotelako kalterik egin Gipuzkoako Foru Aldundiaren irudiari, are gutxiago (...) izango dela kontuan hartuta, eta jorratuko dituen gaiek ez dutela ukituko ez (...) ez (...), ezta (...).

3.- Interesdunak egoki deritzo EEB honi kontsulta egiteari, jakitearren hitzalditik ondorioztatzen den diru ordainak urratzen ote duen erakundearen zuzentasunarekin lotutako jokabide araei buruzko Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.f) araua, jarduerak zintzotasun eta eskuzabaltasun balore zehatzekin bat garatzeari buruzkoa.

## **II.- APLIKAZIO ARAUAK**

1.- Diputatuen Kontseiluaren 2016ko martxoaren 1eko erabakiaren bidez Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta haren sektore publikoaren Erakundearen Zuzentasun Sistema onartu zen; horren helburua etika publikoa eta eredugarritasuna nortasun ezaugarritzat finkatzea da.

Sistema horren barnean Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea dago, eta foru kargu publikoek nahiz langile baliokideek beren eginkizun eta jarduera publikoetan edo, hala dagokionean, zerbitzuak ematen dituzten erakundearen irudiaren gainean eragin dezaketen pribatuetan ari direnean gorde eta sustatu beharko dituzten jokabide eta jarduera arauak identifikatzen ditu. Horren guztiaren xedea zuzentasuna eta eredugarritasuna sustatzea da, erakundearen irudia babestuta betiere.

2.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeak zortzi balore, zehazki ordezkaria, zuzentasuna, eredugarritasuna, zintzotasuna eta eskuzabaltasuna, objektibotasuna, profesionaltasuna, eraginkortasuna eta bizikidetzatza eta errespetua, eta zortzi printzipio egituratzaile dauzka: lidergo partekatu eta eraldatzailea, gardentasuna, datuen eskuragarritasuna, kudeaketa eta berrikuntza eredu berria, euskararen sustapena eta erabilera, kohesio ekonomiko-soziala eta lurralde oreka, harreman kapitalean oinarritutako gobernua eta herritarren entzute aktiboa eta kontuak ematea, alegia.

Balore eta printzipio esparru horretan, Kodeak jokabide, jarrera eta portaera katalogo zabala jasotzen du, eta horietan osatzen dute EEB honek baliatu behar duen erreferentziazko parametroa, Kodeari bere borondatez atxikitako kargu publikoek edo Kodeak jasotzen dituen aurreikuspenak bete daitezkeen interes zintzoa duten hirugarren batzuek aurkezten dizkieten kontsulta, zalantza eta dilema etikoak aztertu eta ebazteko.

3.- Erakundearen Zuzentasun Sistemari aurreikusten da Erakundearen Etika Batzordea sortzea, organo independente gisa eta eginkizun izanik honakoak: Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeari jasotako balore, printzipio eta jokabide arauak bultzatu, sustatu eta horiek betetzen direla bermatzea, eta erakundearen irudia kaltetu dezakeen edozein ez-betetzeri edo jokabide desegokiri aurrea hartzea.

Berme organoaren eginkizunak kargu publikoen eta langile baliokideen gainean proiektatuko dira, eta baita Foru Administrazioaren eta beronen foru sektore publikoaren zerbitzuko pertsonalaren gainean ere, hala badagokio.

4.- 3/2016 Foru Dekretuak, martxoaren 1ekoak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru sektore publikoko Erakundearen Etika Batzordea eratzeak, 3.b) artikuluan xedatzen du ezen EEBri dagokiola ebazpen, txosten edo oharren bidez ebaztea kargu publikoek egindako kontsultak eta azaldutako zalantza eta dilema etikoak.

5.- Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodearen 1.3 artikuluan ezarriaren arabera, eskatzaileari aplika dakioke.

### III. ERAKUNDEAREN ETIKA BATZORDEAREN BALORAZIOA

1.- Interesdunak egiten duen kontsulta noizbehinkako jarduera bati buruzkoa da, eta printzipioz ez du zerikusirik (...) Departamentuko (...) zuzendari nagusi gisa duen karguarekin. Zehazki, jarduera hori hitzaldi bat da, IVAP eta EUDELEk (...) inguruan antolatutako (...) izeneko jardunaldi teknikoan ematekoa. Hitzaldiaren gaia (...) da.

2.- Horri dagokionez, Gipuzkoako Foru Administrazioko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4. f) arauak honakoa xedatzen du: *“Foru kargu publikoek ez dute inolako opari, gonbidapen, bidaia, otordu edo ordainketa ekonomikorik onartuko bere funtzioak betetzearekin lotutako hitzaldiak emateagatik edo karguari lotutako jarduerak egiteagatik, baldin eta horiek bere zintzotasuna zalantzan jartzen badute, edota parte hartzen prozesua baldintzatzen dutela pentsa badaiteke. Kontsulta edo kexen bidez, berme organoak kasuan kasu onargarriak eta onartezinak diren opari, konpentsazio eta onuren zerrenda ezarriko du. Salbuespen horiek Kode honetako Aplikazio Gidan xedatuko dira”.*

3.- Eskaera azterturik eta edukia egiaztaturik, frogatuta geratu da hitzaldi hori emateko jasotako gonbidapenaren atzean interesdunaren esperientzia profesional luzea dagoela, (...) 20 urtetik gora egin baititu, gai horretako (...); hau da, gonbidapenak ez du zerikusirik (...) zuzendari nagusi karguarekin.

Are gehiago, hitzaldiaren gaia (...) da, eta hori ez da sartzen Gipuzkoako Foru Aldundian dagozkion jarduera esparru eta eginkizunetan, ekainaren 24ko 3/2015 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuak eta horiei dagozkien jardun esparruak eta eginkizunak finkatzekoak, ezartzen duenaren arabera.

Beraz, ondorioztatzen da hitzaldia ematea interesduna gai horretako aditu izateari dagoela lotuta, eta ez duela zerikusirik, argi eta inolako zalantzarik gabe, gaur egun duen kargu publikoa betetzearekin.

Hori guztia aintzat hartuta, Erakundearen Etika Batzordeak aho batez ematen du hurrengo

## **EBAZPENA**

**Lehena.-** Interesdunak ez du urratzen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea, IVAP eta EUDELeK (...) inguruan antolatutako (...) izeneko jardunaldi teknikoan (...) izeneko hitzaldia emateagatiko diru ordaina jasotzea onartzen badu, gaur egun duen zuzendari kargu publikotik aparteko noizbehinkako jarduera bat delako.

**Bigarrena.-** Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko 3.4.f.) araua aplikaturik, erabakitzen da Gipuzkoako Foru Aldundiko eta haren sektore publikoko kargu publikoen zein langile baliokideen Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodeko Aplikazio Gidan jasotzea ez dela Jokabide eta Jardunbide Egokien Kodea urratzen diru ordaina hartzea onartzen denean gai bateko aurretiko aditu izaerari lotutako hitzaldi bat emateagatik, betiere hitzaldi emate hori ez dagoenean une horretan betetzen ari den kargu publikoari loturik.

**Donostia, 2016ko maiatzaren 26an**

**Erakundearen Etika Batzordeko burua**

**Imanol Lasa Zeberio**